

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>antzeratu</b>	...amak agindu baitzion begirunez tratatu beharra zeukala Maria, eta ez <b>antzeratzeko</b> inolaz ere aita hari hitz egiteko zuen modua.
<b>ñimiño</b>	...esan zuen berriro, hitzak zipriztinka ateratzen zitzaizkiola, zehe-zehe mamurtu baina artean irentsi gabeko opil zati <b>ñiminoz</b> beteta balu bezala ahoa.
<b>arbi</b>	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, <b>arbiz</b> eta muskilez gainezka zeudenak...
<b>ohore-domina</b>	...baina aitarena bezalako uniformearen zuen soinean, nahiz eta harenak baino <b>ohore-domina</b> gutxiago izan apaingarri.
<b>bere uztako</b>	...Gretelen galderei ez erantzunarena egiteko ohitura baitzuen, eta trebea baitzen, arrebarenei erantzun ordez, <b>bere uztakoren</b> bat edo beste egiten hari.
<b>ukalondo</b>	Baina, alde paretik- esan zion nebari, <b>ukalondoaz</b> alde batera baztertzen zuela.
<b>kareore</b>	Norbere etxea ez da eraikin bat, kale bat edo hiri bat, adreiluz eta <b>kareorez</b> egindako zer artifizial hutsa.
<b>pitzatu eta zartatu</b>	Sabaiaren margolan zuria <b>pitzatzen</b> eta <b>zartatzen</b> hasia zen, modu zeharo itxuragabea...
<b>burtzoragarri</b>	...eta hura berarenganaino heldu zenean bakarrik amore eman zion, zeharo eta erabat, jirabiraka zebilkion zorabio-antzeko sentipen <b>burtzoragarriari</b> .
<b>ezten</b>	...likido berde batez bete, eta harekin igurtzi zion zauria, eta haren <b>ezten</b> zorrotzak erremin-oihuak eginarazi zizkion Brunori, "ai, oi, ei" esanarazi...
<b>tita</b>	Une hartantxe, ordea, <b>tita</b> -antzeko zerbait agertu zen urrunean, eta begiak txiki-txiki egin zituen zer izan zitekeen ikusteko.
<b>bekozkoa ilundu</b>	—Polonia —esan zuen Brunok, pentsakor,[...]—. Ez da Alemania bezain bikaina, ezta ba? <b>Bekozkoa</b> ilundu zuen Shmuelek.
<b>berripaper</b>	Ez duzu sekularik <b>berripaperik</b> irakurtzen, ala? —Arren, ez deitu tentel, nebari! —esan zuen amak.
<b>bekaiztu</b>	—Nik ez dut normalean kizkurtuta izaten ilea —esan zuen Gretelek, nebak emakumearen arreta osoa bereganatu zuelako <b>bekaiztuta</b> .
<b>ukendu</b>	...berak ekarri ninduen hona, eta ebakia garbitu eta sendatu zidan, eta <b>ukendu</b> berdearekin igurtzi...
<b>lotailu</b>	Eta zinbulu-zanbulutik erori nintzenean berak garbitu eta sendatu zidan erabat ebakia, bere hartan gaiztotu ez zedin, eta <b>lotailu</b> batez lotu zidan zangoa.
<b>so</b>	...eta hormaren kontra geratzen zen, zutik, eta geldi-delgi, ez aurrera ez atzera begiratzen zuela auskalo non galdua zuelarik <b>soa</b> .
<b>histua</b>	...bazirudien gero eta txikiago bihurtzen ari zela, [...] haren masailek ere <b>histuak</b> ziruditen zeharo, ia koloregabe bihurtzeraino.
<b>kuxidade</b>	...panpinekin hizketan ari zela, alegia errieta ematen ari zitzaizela, bera kanpoan izan zen bitartean <b>kuxidade</b> halakoa sortu ziotelako...
<b>gatibu</b>	—Ezagutzen al duzu mutiko hau? —esan zuen berriro ere Kotlerrek, are ahots apalagoz—. Preso <b>gatibuekin</b> hizketan aritu al zara?

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>ile-xerlo</b>	Amari erakutsi zion arrautza, eta amak burua arakatu zion Greteli, <b>ile-xerlo</b> bakoitza banan-banan bereiziz eta haztatuz...
<b>iradoki</b>	...berriro Berlinera itzul ziteztena denak etorkizun hurbilean, eta ez hilabete buruan, Brunok <b>iradoki</b> zuenez.
<b>aise</b>	...Brunok pentsatu zuen handik <b>aise</b> begiratu ahal izango zuela kanpoaldera...
<b>irriño</b>	...halakoetan, <b>irriño</b> txoroak egitea galarazi behar izaten zion bere buruari.
<b>hazpegi</b>	Gizon txiki samarra zen, argal-argala, hezurra eta azala baino ez, eta hatz luzeak zituen, eta <b>hazpegi</b> hezurtsuak.
<b>hitzordu</b>	...nik, behintzat, <b>hitzordua</b> egina daukat antzokira...
<b>otu</b>	Gretelen nebari, berriz, azken burutazio bat <b>otu</b> zitzaion ehunka lagun haiei begira zegoela,...
<b>higuingarri</b>	Ez zitzaion hura izendatzeko modu samurragorik bururatu: <b>higuingarri</b> hutsa zen etsi-etsian.
<b>zinbulu-zanbulu</b>	— <b>Zinbulu-zanbulu</b> bat egin dut, eta muturrez aurrera erori naiz handik — azaldu zion amari—.
<b>doi-doi</b>	Goizero-goizero denok elkarrekin gosaltzen genuen, zazpitan <b>doi-doi</b> , eta gero anaia eta biok eskolara joaten ginen.
<b>bederen</b>	Galdetu diot ea astean behin, <b>bederen</b> , irakurri ahal izango ditugun, baina ezetz erantzun dit...
<b>desenkusa</b>	...atsekabezko keinua egin zuen orduan Brunok, <b>desenkusa</b> eta barkamen kontuez zeharo ahaztuta.
<b>marrantatu</b>	—Noiz? —galdetu zion, ahots <b>marrantatuaz</b> , eztarria urratu izan balitzaio bezala.
<b>bonet</b>	Brunok azken ukituak eman zizkion bere mozorroari, eta buruan jarri zuen oihalezko <b>bonet</b> marraduna.
<b>arrangura</b>	Eta joan egin zen, otzan-otzan, inolako <b>arrangurarik</b> agertu gabe; pozik ere bai, aurrerantzean berdin baitzion zer egin ziezaioketen.
<b>neskame</b>	...harrituta geratu zen Bruno bere gelan aurkitu zuelako Maria, familiako <b>neskamea</b> .
<b>bazter-nahasle</b>	...horrek esan nahi zuen beste mutikorik ere ez zela, jolaserako, ez lagun ez <b>bazter-nahasle</b> modukorik.
<b>kirrinka</b>	...une hartan <b>kirrinka</b> bat aditu zen kanpoaldean.
<b>txirikorda</b>	...panpinak bere txirikorda urre-koloreak...
<b>makulu</b>	...beste batzuk <b>makuluekin</b> zebiltzan.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>ukabilka</b>	...gorputzak horman islatzen zion itzalaren kontra <b>ukabilka</b> .
<b>zoko-moko</b>	Ehunka <b>zoko-moko</b> eta zirrikitu ezkutu zituen esploratzeko.
<b>begitarte</b>	... <b>begitarte</b> malenkoniatsua ageri zuen.
<b>minberatu</b>	...erabat <b>minberatuak</b> zituen besoa eta zangoa.
<b>kontu-kontari aritu</b>	...elkarri <b>kontu kontari aritu</b> gara urtebete pasatxo inguruan.
<b>kliskatu</b>	...begiak <b>kliskatu</b> zituen Brunok.
<b>suhartasun</b>	—Zoragarri! —esan zuen Brunok, uneko <b>suhartasunak</b> gogoberoturik.
<b>zilipurdika</b>	...urratsez urrats, lurrera <b>zilipurdika</b> erortzeko arriskuari...
<b>errukigabe</b>	...jada ez zuten gogoko, agintari <b>errukigabea</b> bihurtu baitzen.
<b>miatu</b>	...zeren eta ez bazion ere etxeratu eta norbait bere gauzak <b>miatzen</b> aurkitzea.
<b>motots</b>	...buruaren atzeko aldean sare-itxurako <b>motots</b> batean bildua.
<b>bihurdikatu</b>	...eskuak bata bestearen kontra <b>bihurdikatzen</b> zituen, urduri, esan nahiko ez lukeen zerbait esatera balihoa bezala...
<b>mamurtu</b>	...xehe-xehe <b>mamurtu</b> baina artean irentsi gabeko opil zati bat.
<b>apartsu</b>	...batzuetan gizonezkoak eta emakumezkoak aurkitu ohi zituen haietara eserita, edari <b>apartsuak</b> edanez eta ozenki barrez...
<b>arrapaladan</b>	... <b>arrapaladan</b> irtena baitzen handik sagu hil baten itxura osoa zeukan zerbait zeramala eskuan.
<b>atontu</b>	Nire amak <b>atontzen</b> zizkion arropa guztiak kontzerturako.
<b>atxiki</b>	...baina sekula ez zen gai izan haien izenak gogoan <b>atxikitzeko</b> .
<b>aditu</b>	...sukaldeko labean afaritarako erretzen ari ziren behikiaren usain gozua <b>aditu</b> ahal, ordea, erabaki zuen hobe izango zela
<b>andana</b>	Ostera begiak zabaldu zituenean, ez zirudien bere kabuz ibili zebilenik, baizik eta jende <b>andana</b> hark herrestan zeramala...
<b>herrestan</b>	...ez zirudien bere kabuz zebilenik, baizik eta jende andana hark <b>herrestan</b> zeramala...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>gainbegiratu</b>	...aurreko egunetako gertakarien <b>gainbegiratu</b> azkat bat egiten zuela.
<b>irristan</b>	Goialdeko solairuan eskudelaren gainean jarri eta etxe osoan behera <b>irristan</b> jaistea baino, riiiiisssstt.
<b>puxtarri</b>	...bestela, bost <b>puxtarri</b> gutxiago, eta ostera goitik beherakoei ekitera.
<b>tentu</b>	...zeren eta bestela inolako arretarik eta <b>tenturik</b> gabe aterako baitzizkion gauza guztiak.
<b>eskerga</b>	Berlingo etxea <b>eskerga</b> zen.
<b>ingurumari</b>	Berlingo etxearen <b>ingurumari</b> guztian baziren beste kale batzuk...
<b>erretilu</b>	Bata bestearen gainean pilatutako <b>erretiluetan</b> azaburuak, azenarioak, azaloreak eta artaburuak zituztenak salgai.
<b>azaburu</b>	Bata bestearen gainean pilatutako erretiluetan <b>azaburuak</b> , azenarioak , azaloreak eta artaburuak zituztenak salgai.
<b>barrunbe</b>	Bazekien bere <b>barrunberik</b> zokondoenekotik gora zetorkion min hark kanpoaldera egin ziezaiokeela.
<b>kox-kox</b>	...atean <b>kox-kox</b> jo ere egin gabe.
<b>gizaseme</b>	...datorrela lana behar bezala egingo duen <b>gizaseme</b> bat.
<b>abiaburu</b>	<b>Abiaburua</b> nahiko polita zuen.
<b>txilardi</b>	... <b>txilardi</b> mortu eta lainotsu bateko jauregi erraldoi bateko zokoren batean.
<b>eskuarki</b>	...horrek bitxia lurudike, <b>eskuarki</b> , baina oraingo honetan Gretelek bazekien zergatik zen.
<b>haraindi</b>	...ez zen belar izpirik hesiaz <b>haraindira</b> .
<b>otzan</b>	...agindupeko apal eta <b>otzana</b> baino ez zen arreba.
<b>lerde-jario</b>	...musu <b>lerde-jarioak</b> ere ematen baitzituzten.
<b>buruargi</b>	Oso emakume <b>buruargia</b> da.
<b>sor eta lor</b>	...halako itxura izango ote zuen zerbaitek <b>sor eta lor</b> uzten zuenean.
<b>goibel</b>	Shmuelek oso <b>goibel</b> zirudien bere istorioa kontatzen aritu zen bitartean.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>tupustean</b>	...mutikoa zertan zebilen ikustean, <b>tupustean</b> geratu zen.
<b>lerratu</b>	...uste baino arinago <b>lerratu</b> zitzaizkion hitzak ahotik.
<b>ziplo</b>	...gogora ekarri zuen, orobat, bizikletatik <b>ziplo</b> erori zeneko hura.
<b>aitzitik</b>	... <b>aitzitik</b> , tentelkeriak baino ez zizkion aipatu orduan.
<b>itsumustuan</b>	Hitzik esan gabe, Kotlerrek <b>itsumustuan</b> kendu zion liburua eskuetatik.
<b>gutizia</b>	...ñir-ñir egiten zioten begiek, pozaren pozez, bizitzan ezer gutxi baitzuen <b>gutizia</b> kutunagorik oilasko hotza, tipulaz eta salbiaz barrubetea baino.
<b>ubeldura</b>	...beltzune eta <b>ubeldura</b> mordoa ageri zuen aurpegian
<b>iraulkatu</b>	Amak esan zion amama hilobian <b>iraulkatuko</b> litzatekeela nork bidalia zen jakin izan balu.
<b>kaskezur</b>	...kontu hura azkenean <b>kaskezurrean</b> sartzea lortu zuelako.
<b>intzirika</b>	...begiak negarrez zerizkiola eta <b>intzirika</b> .
<b>grina</b>	Brunori besarkada bat emateko <b>grina</b> bizia sentitu zuen Shmuelek.
<b>arakatu</b>	...esparru osoa <b>arakatzen</b> , miatu eta miatu, froga argigarriren baten bila.
<b>gizabidetsu</b>	Izan ere, azken egun haietan ezin <b>gizabidetsuago</b> jokatu zuen mundu guztiarekin...
<b>hasperen</b>	Amak <b>hasperen</b> egin zuen eta airean luzatu zituen eskuak...
<b>kutunkeria</b>	...erabat sinetsita baitzegoen <b>kutunkeriarik</b> gabe jokatu beharra zeukala, eta, Brunok onartu egin zion...
<b>eskudel</b>	... <b>eskudelean</b> behera irristan jaisten zen, oin-puntetan jarri eta Berlin osoa ikusten zuen.
<b>leiar</b>	Gero, <b>leiarren</b> kontra bermatu aurpegia, kanpoaldera begiratu eta han zegoena ikusi zuen...
<b>tematu</b>	—Sei urte bakarrik dituzula, ezta ba? — <b>tematu</b> ohi zitzaion marisorgin beldurgarria...
<b>anker</b>	...nahikoa hazi ahal izango zen berriro beren etxera itzultzen zirenerako, eta, hartara, aurrerantzean ezin izango zuten hain <b>anker</b> jokatu berarekin.
<b>lausotu</b>	Apur bat baino ez zitzaion <b>lausotu</b> irribarrea aitari, eta une batez gainbegiratu bat egin zion gutunari...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen: Nota: 

<b>miazkatu</b>	Ezpainak <b>miazkatu</b> zituen Brunok, eta gero beste aldera begiratu zuen. Nonbait, ez zitzaion burutazio ona iruditu aitaren begiradari tinko eustea.
<b>diosal</b>	...hitz bi ahozkatu zituen –aitak inoiz irudikatu baino askoz ere argiago eta ozenago–, soldaduren bati <b>diosal</b> egiterakoan esan beharreko haiexek.
<b>taxuz</b>	...hitz egokiak aukeratu eta <b>taxuz</b> ahoskatu nahiko balitu bezala, baina gero hobeto pentsatu bide zuen eta guzti-guztiak baztertu zituen.
<b>ataka</b>	...haserrekor, Mariak <b>ataka</b> gaiztoan jarri nahi izan balu bezala berariaz.
<b>berariaz</b>	...haserrekor, Mariak ataka gaiztoan jarri nahi izan balu bezala <b>berariaz</b> .
<b>kosk egin</b>	<b>Kosk egin</b> zion ezpainari Brunok. Espero zuen bere alde izango zuela Maria...
<b>eldarnio</b>	Bazen haren begietan <b>eldarniozko</b> bat, lehenago inoiz ikusi gabekoa, eta mutikoari ondoeza eragin ziona.
<b>aldarazi</b>	Besterik zer egin dezakegu, ba, azken batean? Ez dagokigu, guri, gauzak <b>aldaraztea</b> .
<b>horail</b>	Lehenik, afaritan izan zituzten Fiera eta harekin etorri zen emakume <b>horail</b> ederra...
<b>aitaita</b>	<b>Aitaita</b> harro-harro zegoen bere semea uniforme-jantzi berriarekin ikustean, baina amama zen hunkituta ez zirudien bakararra.
<b>lotinanta</b>	Kotler <b>lotinanta</b> urrats luzeak eginez ibiltzen zen, artean, bere bota beltzak jantzita...
<b>orban</b>	...konturatu zen hasiera bateko zera hura ez zela tita bat, ez <b>orban</b> bat, ez pinporta bat, ez eta irudi bat ere, baizik eta pertsona bat.
<b>malenkoniatsu</b>	Mutiko hura Bruno baino txikiagoa zen, eta lurtean eserita zegoen, eta begitarte <b>malenkoniatsua</b> ageri zuen.
<b>xerra</b>	...lagunaren alderantz makurtu eta oilasko <b>xerrak</b> eskura ematen zizkiola.
<b>asaldatu</b>	Brunok ez zuen bere inguruan nork haserrearaziko eta <b>asaldaraziko</b> .
<b>pinporta</b>	...konturatu zen hasiera bateko zera hura ez zela tita bat, ez orban bat, ez <b>pinporta</b> bat, ez eta irudi bat ere, baizik eta pertsona bat.
<b>adeitasun</b>	...erantsi zuen, zeren eta berri bitxiak eta mingarriak baziren ere, Brunok ez baitzitu zertan urratu irakatsi zizkioten <b>adeitasun</b> arauak.
<b>errieta eman</b>	—Nahikoa da, Bruno –esan zion bat-batean, <b>errieta emanez</b> orain, eta zutitu egin zen...
<b>erdeinu</b>	—Egingo dituzu lagun gehiago –esan zuen amak, eskua airean astintzen zuela, <b>erdeinuz</b> , mutiko batentzat munduko gauzarik errazena izango balitz bezala...
<b>mortu</b>	Etxe berria, ordea, bera bakar-bakarrik zegoen leku huts eta <b>mortu</b> batean, eta han ez zen beste etxerik ageri ikusmenean...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>kuiatxo</b>	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, arbiz eta muskilez gainezka zeudenak; urazaz eta lekaz, <b>kuiatxoz</b> eta pastinakaz lepo...
<b>beirateria</b>	...esan zuen amak, kutxa bat zabaltzen zuela, hantxe baitzegoen hirurogeita lau piezako <b>beirateria</b> ...
<b>bidezidor</b>	Handik harago zegoen <b>bidezidorra</b> eta, are harago oraindik, baso bat, berak noiz nola esploratuko zain.
<b>ahaide</b>	...aitak, aitaitak, osabak, elkarren gisako norbanakoak eta edonoren iraganbidean bizi zirenak eta inongo <b>ahaidetik</b> ez zutela zirudienak...
<b>purrustada</b>	...jarleku huts pila eta leihoak ere bazituenera, eta haiexek jaitsi ahala aire freskoa <b>purrustadan</b> sartzen zenera.
<b>burrunbari</b>	Brunok ez zuen aitaren ahots <b>burrunbaria</b> aditu inon ere, ez eta haren bota pisuen zarata astuna ere...
<b>huntz</b>	Batzuetan, arratsalde epeletan, gogoko nuen hantxe esertzea, eguzki-argitan, eta nire askaria jatea, urmael ondoko <b>huntzaren</b> gerizpean.
<b>sinesgogor</b>	—Ez al dut baimenik pentsatzen dudana esateko? —galdetu zion berriro, <b>sinesgogor</b> .
<b>soropil</b>	Bruno besoetan hartu eta <b>soropila</b> zeharkatu zuen Pavelek, osteratxuek alderantz eginez.
<b>emeki-emeki</b>	...eta harekin igurtzi zion <b>emeki-emeki</b> belaunburua Brunori; min-keinu bat egin zuen mutikoak...
<b>abagune</b>	Ez zen hura, baina, ikuskari zume haien alderik onena. Alderik onena zen <b>abagunerako</b> mozorroak egiten zizkiela amamak Brunori eta Greteli.
<b>goititu</b>	Ezin harroago naukazu, halako erantzukizuneko kargura <b>goititu</b> zaituztelako
<b>tentetu</b>	—Lagun asko al dituzu? —galdetu zion Brunok, burua alde baterantz <b>tentetuz</b> , eta erantzuna entzuteko zain-zain.
<b>hizpidea</b>	Brunori begira geratu zen Samuel, baina ez zion ezer esan, eta Brunok <b>hizpidea</b> aldatzeko irrika bizia sumatu zuen...
<b>ihardetsi</b>	—Tira, Alemania delako denik eta herrialderik handiena — <b>ihardetsi</b> zion Brunok aitari...
<b>beren kasa</b>	Badira zenbait gauza, hortxe egonean daudenak, <b>beren kasako</b> kontuetan bilduak, eta besteren kontuei jaramonik egin gabe, nork noiz aurkituko zain.
<b>xehatu</b>	Izan ere, Paveli buruzko kontuak kontatzen airtu zait, alegia barazkiak <b>xehatu</b> eta gerora mahaira zerbitzatzen dizkigun gizonari buruzkoak.
<b>atergabe</b>	Herr List jaunaren goizeko eskolek iraun zuten artean, <b>atergabe</b> aritu zuen. Bazkalorduan, atergabe aritu zuen.
<b>setatu</b>	—Autsbiz izena din —protesta egin zion Brunok. —Ezetz, ba — <b>setatu</b> zitzaion arreba, eta esparruaren izena zuzen eta egoki ahozkatu zion nebari.
<b>di-da</b>	—Kontrakoa gaituk —erantzun zion Gretelek, <b>di-da</b> , eta eman berri zion erantzunaz askoz ere kontentago—. Bai halakoxeak gaituk. Kontrakokoak.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>egitasmo</b>	...eta aitak hemen geratu behar du lanean, Fierak <b>egitasmo</b> handiak bide dituelako harentzat, baina gainerako guztiok etxera itzuliko gara.
<b>kaskamotz</b>	Esku bat pausatu zuen bere buru <b>kaskamotzean</b> , eta haren lakarrak adierazi zion egun batzuetako ilea baino ez zitzaiola hazi artean-.
<b>txintik ez esan</b>	Amari begiratu zion Brunok une batez, <b>txintik ere esan gabe</b> , eta bere artean egin zuen ama ez zela behar bezain ongi makillatu goiz hartan...
<b>gogaikarri</b>	Ez zitzaion bereziki <b>gogaikarria</b> irudituko.
<b>xuxurlatu</b>	...elkarri <b>xuxurlaka</b> baino hitz egiten ez ziotenak.
<b>larrutik ordaindu</b>	... <b>larrutik ordaindu</b> beharko dute...
<b>amore eman</b>	...baina, isilean <b>amore eman</b> zuen...
<b>hautsak harrotuz joan</b>	Norbaitek esan zion: “Utikan hemendik <b>hautsak harrotuz</b> , ezgai halakoa!”.
<b>buru-belarri</b>	Ez zen jiratu ere egin, bere gelan zegoen <b>buru-belarri</b> .
<b>sumatu</b>	Oinaze ohiz kanpoko bat <b>sumatu</b> zuen bere baitan.
<b>isil-misilka</b>	Gretelek, <b>isil-misilka</b> , galdetu ez balio bezala.
<b>urratu</b>	Ez zioten hitz erdirik egin elkarri une batez, eta azkenean aitak <b>urratu</b> zuen isilunea.
<b>kaiku</b>	...atzera begiratzen nengoela, <b>kaiku</b> galanta nintzela...
<b>hertsatu</b>	...ukabiltzeraino <b>hertsatu</b> zituen eskuak...
<b>ezbehar</b>	... <b>ezbehar</b> bat gertatuko zitzaizula banekien...
<b>harrezkero</b>	<b>Harrezkero</b> , Brunok ez zuen askotan ikusi amama, eta hari agur esateko aukerarik ere ez zuen izan...
<b>aho batez</b>	Aitak eta amak <b>aho batez</b> erabakia hartu zuten.
<b>mutiko</b>	<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>
<b>ostera</b>	<b>Ostera</b> begiak zabaldu zituenean, ez zirudien bere kabuz ibili zebilenik, baizik eta jende andana hark herrestan zeramala...
<b>haztatu</b>	—Polonia —esan zuen Brunok, pentsakor, hitz hura mihi-puntaz ondo <b>haztatu</b> z-. Ez da Alemania bezain bikaina, ezta ba?



Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>sarkasmo</b>	...esan zuen Gretelek, sarkasmo burlaizez, hamahiru urte bete baitzituen berriki, eta sofistikaziorik sofistikatuentzat baitzeukan <b>sarkasmoa</b> –.
<b>pisu</b>	Brunok ez zuen aitaren ahots burrunbaria aditu inon ere, ez eta haren bota <b>pisuen</b> zarata astuna ere...
<b>bide</b>	...eta aitak hemen geratu behar du lanean, Fierak <b>egitasmo</b> handiak bide dituelako harentzat, baina gainerako guztiok etxera itzuliko gara.
<b>ñir-ñir</b>	... <b>ñir-ñir</b> egiten zioten begiek, pozaren pozez, bizitzan ezer gutxi baitzuen gutizia kutunagorik oilasko hotza, tipulaz eta salbiaz barrubetea baino.
<b>egonean egon</b>	Badira zenbait gauza, hortxe <b>egonean daudenak</b> , beren kasako kontuetan bilduak, eta besteren kontuei jaramonik egin gabe, nork noiz aurkituko zain.
<b>zuntzun</b>	Berrero leihotik begiratu zuen Gretelek, eta baietz egin zion buruaz, ez baitzen hain <b>zuntzuna</b> ere arrazoi zuelakoan tematzeko...
<b>marisorgin</b>	—Sei urte bakarrik dituzula, ezta ba? —tematu ohi zitzaion <b>marisorgin</b> beldurgarria...
<b>nahaste-borraste</b>	...ez zuen gogoratzen inolako <b>nahaste-borrasterik</b> sortu zuenik.
<b>jokatu</b>	...zeren eta bere buruarekin zintzo <b>jokatzekotan</b> –eta beti saiatzen zen horrela jokatzan–, ez baitzekien erabat ziur zer lanbide zuen aitak.
<b>ahalik eta urrunen</b>	...zeintzuengandik hobe baitzen <b>ahalik eta urrunen</b> ibiltzea, zuhurtziaz.
<b>arau murriztaile</b>	...zeina uste izatekoa baita etxe zaharrear bezalako <b>arau murriztaileen</b> pean egongo zela...
<b>hitzetik hortzera</b>	...erantsi zuen, esamolde berri hura boteaz, <b>hitzetik hortzera</b> erabiltzeko erabakia hartua baitzuen.
<b>artean</b>	...jostailuak eta liburuak <b>artean</b> kutxetatik atera gabe.
<b>loki</b>	<b>Lokietatik</b> igarri zion Brunok ile horail-horaila zuela, naturala ez emateraino horikara ia.
<b>ziztrin</b>	...Brunok sei urte <b>ziztrin</b> ditu –esan ohi zuen marisorgin beldurgarri haietako batek...
<b>horixe</b>	— <b>Horixe</b> ekarri ditudala –ihardetsi zion arrebak–. Ene!
<b>bebingoagatik</b>	...konturatu zen harekin bat zetorrela <b>bebingoagatik</b> .
<b>paraturik</b>	...sorbaldaren alde banatara orekatsu <b>paraturik</b> ageri zituen panpinak bere txirikorda urre-koloreak, haietatik nork noiz tira egingo zain.
<b>bertatik bertara</b>	Eta orduantxe ikusi ahal izan zuen, <b>bertatik bertara</b> , Bruno kontatzen aritu zitzaiona.
<b>litekeena</b>	— <b>Litekeena</b> dun –esan zuen Brunok, bai baitzekien arrega baino gazteagoa zela...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>lokaztu</b>	...hantxe utzi behar baitzituen Brunok ere bere oinetako <b>lokaztuak</b> kaletik etxerakoan...
<b>sarri</b>	Ile beltz <b>sarria</b> , berriz, arestian lakaz espraieztatua zuen...
<b>arestian</b>	Ile beltz sarria, berriz, <b>arestian</b> lakaz espraieztatua zuen...
<b>hausnartu</b>	...gero gorantz begiratu zuen ostera, semearen erantzuna astiro <b>hausnartu</b> nahian.
<b>nonbait</b>	<b>Nonbait</b> , ez zitzaion burutazio ona iruditu aitaren begiradari tinko eustea.
<b>ezpaldu</b>	...hango hura ez zen inoiz <b>ezpaltzen</b> , eta uda oro goitik behera margoarazten zuen amak...
<b>hutsegite</b>	Nire ustez, <b>hutsegite</b> galanta egin du.
<b>galant</b>	Nire ustez, hutsegite <b>galanta</b> egin du.
<b>bere kolkorako</b>	Ergel hutsa dut aita –erantsi zuen <b>bere kolkorako</b> .
<b>ergel hutsa</b>	<b>Ergel hutsa</b> dut aita –erantsi zuen bere kolkorako.
<b>zakar jokatu</b>	...bai baitzekien inoiz ez zegoela inolako arrazoirik inorekin <b>zakar jokatzeko</b> .
<b>aurki</b>	Zoritxarrez, denbora franko emango dugu <b>aurki</b> gerrari buruz hitz egiten.
<b>tutik ere ez ulertu</b>	Harriduraz begiratu zion Brunok. <b>Ez</b> zuen <b>tutik ere ulertzen</b> .
<b>bere artean egin</b>	Amar begiratu zion Brunok une batez, txintik ere esan gabe, eta <b>bere artean egin</b> zuen ama ez zela behar bezain ongi makillatu goiz hartan...
<b>hunkitu</b>	Aitaita harro-harro zegoen bere semea uniforme-jantzi berriarekin ikusteaz, baina amama zen <b>hunkituta</b> ez zirudien bakarra.
<b>muskil</b>	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, arbiz eta <b>muskilez</b> gainezka zeudenak...
<b>balihoa bezala</b>	...eskuak bata bestearen kontra bihurrikatzen zituen, urduri, esan nahiko ez lukeen zerbait esatera <b>balihoa bezala</b> ...
<b>zeharo</b>	...eta hura berarenganaino heldu zenean bakarrik amore eman zion, <b>zeharo</b> eta erabat, jirabiraka zebilkinson zorabio-antzeko sentipen burtzoragarriari.
<b>ondoez</b>	Bazen haren begietan eldarniozko bat, lehenago inoiz ikusi gabekoa, eta mutikoari <b>ondoez</b> eragin ziona.
<b>utikan</b>	Norbaitek esan zion: “ <b>Utikan</b> hemendik hautsak harrotuz, ezgai halakoa!”.